



35 auzipetu eta 10na urteko zigor eskaera

Gaur hasiko da, Madrilén, ezker abertzaleko alderdietako kideen aurkako azken epaiketa, abilotuak izan eta zortzi urtera. • 08

OSTEGUNA, 2015EKO ABENDUAREN 3A • XIII. URTEA • 3.862. ZENBAKIA • WWW.BERRIA.EUS

1,30 EURO

Deskonexioa berretsiz erantzun dio Kataluniako Gobernuak Madrili

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak indarrrik gabe utzi du Kataluniako Parlamentuaren azaroaren 9ko haustura adierazpena • «Adierazpenaren ondorio politikoek bere hartan» segituko dutela erantzun dute Kataluniatik. • 2



Gazteei eskainitako lilia

'Lili eta biok' nobela plazaratu du Ramon Saizarbitoriak • Idazlearen esanetan, «gazteekin komunikatu behar bat» dago, besteak beste, lan berriaren atzean • 'Martutene'-n agertu zuen pertsonaia da lan berriko narratzailea • 28

Harian 2

Bizi guztiko kartzela zigorra ezarri diote Parisen Mikel Karrerari

2010ean Frantzian polizia bat akabatu izana leporatuta ezarri diote zigorra Mikel Karrera etakideari, haren eta beste bosten aurkako epaiketan. Oharra zabaldu dute auzipetuok, «EPPK kontuan izan gabe edo horren kontra ari dena ez da euskal preso politikoan alde ari» esanez. • 4

Azaroan urrian baino 2.784 langabe gubxiago zeuden Hegoaldean

Joan den hilean egindako kontratu gehienak zerbitzu sektorekoak dira. Aldi baterakoak nagusi direla salatu dute sindikatuek. • 15

Euskararen Nazioarteko Eguna

• GEHIGARRIA

GAUR BERRIArekin



doan

ABENDUAREN 3a

Euskararen Nazioarteko Eguna

Administrazioa euskaraz





Ramon Saizarbitoria, atzo goizez Donostian, *Lili eta biok* liburua aurkeztu aurretik. JON URBE / ARGAZKI PRESS

«Aspertuta nago nire nobelek duten irakurketa politikoarekin»

Ramon Saizarbitoriak 'Lili eta biok' nobela argitaratu du 'Martutene'-ko pertsonaia batetik abiatuta
 • Kasualitateek, gazteekin komunikatzeko beharrak eta betiko obsesioek zizelkaturiko lana da

Gorka Erostarbe Donostia

Irri maltzur leuneez, haurrak izatearekin parekatuta, zera esan du Ramon Saizarbitoriak plazara liburu berri bat ekartzeaz: «Liburuak sobera eta umeak faltan ditugu garalotan. Beharbada ez ditugu horregatik liburuak hain pozik hartzen. Nire kasuan ez dakit zazpigarrena, zortzigarrena edo bederatzigarrena den, hainbat abortu tartean, eta hau da azkenengoetako ume postmenopausidako horietako bat». Eta liburuak idazteari garrantzia kenduz bezala: «Liburu bat gehiago. Ulertzen didazue...».

Liburu bat gehiago da *Lili eta biok* Ramon Saizarbitoriaren ibilbide luzean. Hamabigarren nobela zehazki. Baina era berean liburu berri bat da, bere ezaugarri

propioak dituena, nahiz eta zenbait osagai errepikatu dituen, baita zenbait mekanismo ere bere sortze prozesuan.

Hamalka pauso mardula plazaratu ondotik (1995), *Bihotz bi*, *Gerrako kronikak* (1996) kalera-tu zuen bezalatsu, «arinagoa, kapitularik gabea, umoretsu-edo...», *Martutene* lan luzearen ostean (2012) ekarri du plazara *Lili eta biok* (Erein): «Liburu bat bukatzen duzunean badago depresio *post-partum* hori, eta batek ez daki zer egin. Hutsune bat nabari dut, ur sakonetan sartzeko beldurra ere bai. Gauza arinagoak idazteko gogoia. Eta hala ekin nion langintzari». Hari desberdinak ateratu zitzaizkion bidera. «Garai batean emakumeek idazten zuten literatur pornografiko arina irakurtzen hasi nintzen, eta ipuin

batzuk idatzi nituen erotismo hori modu komiko edo barregarri batean azalduz». Alegia, «idazle neurotikoa mundu horretan irudikatuz, erotismoan, pornografian, perbertsioan. Freudek esaten baitzuen neurosia perbertsioaren negatiboa dela, neurotikoa errentzat perbertsioa izatea zaila izaki». Narrazio horietako batekin «gusturago» sentitu zen Saizarbitoria, eta hari horri tiraka «luzatu» egin zuen kontaketa.

Bidera ateratu zitzaion beste hari mutur bat, errepikatu asmo zuen beste mekanismo bat, «gazteentzako zerbaitegiteko beharra edo gogoia» izan zen. *Kandinskyren tradizioa*-rekin (2003) hurbildu zen aurreneko gazteen unibertsora Saizarbitoria. «Liburu hark jaso zuen oihartzuna niretzat era-

gingarriagoa izan zen, atsegina- goa egin zitzaidan, pertsona heldu baten erreakzioa jasotzea baino. Nahilago nuke gazteren batek irakurriko balu, eta ballagarri bilitzaio. Gazte batekin elkarrizketa hipotetiko bat izateko nahia ere sartu zitzaidan. Gazteekin komunikatzeko behar bat ere badago lan honen atzean».

Gazte hipotetiko horren hezur-mamitze literarioa da *Lili*, liburu-ko bigarren protagonista, zeina, idazlearen hitzetan, ez den Nabokoven Lolitaren parekoa: «Lili ez da Lolita, ezta gutxiago ere, eta izena ez du atzerriko Liliren araberakoa ere, Lili Marleenen tankeran, baizik eta euskarazko lilia da».

Lili da Faustino Iturbe idazle-liburu-ko narratzailea, *Martutene*-ere agertzen zena – Espainia-

ko gerraren hasieran Oztetan gertatutako maitasun istorio tragiko baten bidean jarriko duen hariaren punta, eta istorio horrek badu zerikusia idazleak Ondarretako hondartzan neguko goiz batean uretatik irteten ikusten duen banulari helduarekin. Ikuskizun sensual horrek betiko hilak uste zituen sentimenduak pizten ditu idazle gaixotuarengan.

«Pedagogikoa»

Gazte nerabe argi bat ageri da nobelan, hortaz, eta gazteentzako ere izatea nahi luke idazleak. Asmo hori ondo betetzen du liburuak, Inazio Mujika Iraola Erein etxeko editorearen hitzetan: «Liburu pedagogikoa ere bada, baina hitza kakotx artean ulertuta, ez baita gurasokeriaz idatzitakoa». Geruza eta trama askoko liburu


da, Mujika Iraolaren ustez. «Pertsonaia adina trama dago, eta denak kasualitatezko hari muturrez hari nagusira lotuta, baina zein ondo lotuta. Kasualitatez beteta, baina egiantzekotasunez ere bai. Trama bakoitzak du bere tonua. Batek tonu poliziala, besteak umoretsua, umore finez josia, patetikoa batean, komikoa bestean, xamurra beti, hunkigarri askotan».

Saizarbitoriaren ezaugarri nagusietako bat da pertsonaia sendoak marraztea, psikologikoki ongi hornituak, identifikagarriak eta barrenean arrastoa uzten dutenak. Ezaugarri horiek beraiak ditu liburu berriak, Ereingo Inaki Aldekoaren usteetan. Eta Saizarbitoriak berak «aldarrikatu» nahi luke batez ere «personaia batzuk» daudela, eta «nobela bat». «Nahiz eta badagoen zentzu didaktiko bat; aspertuta nago nire nobelek duten irakurketa politikorekin. Gaztelaniazko itzulpenekin ere gehiago gertatzen zait gainera, are irakurketa politikoa goa egiten dute, eta akaso da nik neuk gehiagi hitz egiten dudalako liburuak argitaratu ostean kontu politikoez, gerraz, kulpaz eta beste... Faustino Iturbe protagonistia hala azaltzen da, eta ni neroni ere idazle baino gehiago nobelagilea naizela uste dut, eta ahalegintzen naizela gauzak esaten, baina era nobelistikoa batean».

Animaliak, masturbazioa...

Saizarbitoriaren nobeletan errepikatu ohi diren gaietako batzuek leku nabarmena dute oraingoan ere: hor da 36ko gerraren lorratza, hor da memoria eta haren transmisioa, hor da hurrengo belaunaldi utzi diegun kultur ondarearen kezka, hor da gizon eta emakumeen arteko harremanarena, hor da sentsualtasuna, eta hor da kulparen zama... Eta batez ere, kasu honetan, kasualitatearen indarra. «Onartu behar dugu geure bizitzetan, onerako zein txarrerako, zein garrantzi duen kasualitateak. Eta kasualitateak literaturan jolasteko zein bide ematen duen».

Kasualitatean izan edo ez, bada idazlearen narratibagintzan berria den elementurik ere liburu kaleratu berria. Markos Zapian literatur kritikariak Saizarbitori eta Irigana liburuan dio idazlearen nobeletan ez direla agertzen ez animaliak, ez masturbazio eszenak, ezta homosexualak ere. Saizarbitoriak umorez hartu dio enkargua: «Oraingoan hiruretatik dago. Txiki txakurra, pare bat masturbazio eta homosexual bat ere bai...».



Ataramiñe elkarteak kideak eta preso sortzaileen senideak, Donostiako aurkezpenean. JON URBE / ARGAZKI PRESS

Barrote artetik ihesean

Euskal presoen sorkuntza lanak argitaratu ditu, aurten ere, Ataramiñe elkarteak • Hiru argitalpen ondu dituzte, 20 sortzaileen lanak jasota

Ander Perez

Kartzelatik ihes egiteko saihesbidea izan ohi da sorkuntza giltzapetua dagoenarentzat. Hala bizi izan du euskal preso askok ere; sorkuntzari heltzen diote, lau paretaren arteko unibertsoaren mugak zabaldu eta barrote artetik ihes egiten saiatzeko. Urtero, ziegatetik kanpora jaurtitako sormen lan horiek jaso eta argitaratu izan ditu Ataramiñe elkarteak. Aurten ere hala egin du, eta presoaren ihesbideaz harago, «beste buelta» bat ikusi du Oier Gonzalez elkarteak kideak uzta berriko lanetan. Norberarengandik hara-

go doa sortzearen balioa: «zaintzen gaituztenen zaintzarako birtarteko gisa» ere erabiltzen da, kasu honetan, sorkuntza.

Orotara, hiru argitalpen kaleratu ditu aurten Ataramiñe, preso diren hogeitaz sortzaileen lanekin. Joan den astean aurkeztu zituzten hiru liburuak, Donostiako Hazlak herri denda, eta Durangoko Azokan jarriko dituzte salgai, hala nola ohiko dendetan eta elkartearen www.literaturakoadernoak.org webgunean ere.

Ataramiñe'15 urtekarian jaso dituzte sortzaile gehien lanak. Besteak beste, marrazkiak, olerkiak, bertsoak eta narrazioak

barnebildu dituzte han. Euskarazkoak dira testu gehienak, baina badira frantsesez eta gaztelaz sortutakoak ere. Urtero kaleratzen du elkarteak bilduma, urte horretan sortutako lanaren uzta jasoz. Eta aurten bereziki nabarmendu dute emakumeen ahotsaren presentzia. Orain arte, «patriarkatuaren aberrazio eta esajerazio gisa» ageri izan da kartzela; orain, horri eutsi egin zaio, baina «berezitasunekin», Gonzalezek dioenez. Eta, batik bat, «erotika femeninoaren» presentzia nabarmendu du. Ekhine Izagirrek egin du koadernoaren hitzaurrea, eta, gainera,

marrazkiak eta idatziak uzartutako atala ondu du Itziar Plaza-rekin batera. Aurkezpenean, gainera, Itziar Morenoren iruditegia ere nabarmendu zuten; berak egin du aurtego liburu-kiaren azala.

Urteko kaieraz gain, beste bi sormen lan ere kaleratu ditu elkarteak. Horietako bat da Mikel Orbegozoren *Ilargiraino* komikia. Aurretik ere bi lan kaleratu ditu Orbegozok Ataramiñeren eskutik, presoen unibertsoa eta eguneroko bizitzaren erretratua eginez. Orain, ordea, barrura beharrean kanpora bideratu du kontakizunaren fokua: gatibuen senide eta lagunengan jarri du arreta; espetxera bisita egitera doazenean, alegia. Eta Marian Etxarri Orbegozoren amak aurkezpenean esan zuen bezala, «pila bat kostatu zaio» lan hori egitea, «errespetu handia ematen ziolako, kanpoko jendea ez zuelako hain ondo ezagutzen».

Eskuz egindako marrazkiak dira kontakizunaren oinarria, eta Gonzalezek dioenez, «koloreen bitartez infinitura egiten du Orbegozok salto, senideak bere koloreekin laztanduz». Hain zuzen ere, presoen senideek astero-astero kartzelatar egin behar izaten dituzten bidaien erreferentzia dakar izenburuak: *Ilargiraino*. Eta Etxarrik dioenez, badu Pirritx eta Porrotxen Maite zaitut kantaren eragina ere.

Joseba Arregi euskal presoarena da argitaratutako beste lan bat, *Burdin elorri arantzetan... denbora jorratzen* izenekoa. 1992tik preso dago Arregi, eta ordutik egindako olioak jaso dituzte liburuan. Margolan bakoitzak piztutako gogoetekin, gainera, testua erantsi die sortzaileak irudiei. Gonzalezek dioenez, Arregi berak «bere pintura eta testuak oso xumeak direla aitortzen badu ere, lan bakoitzean badira detaileak, lan bakoitzean aurkitu daitezke autorearen perla».

hamaika abantaila

berrialaguna

xixili
cafe

Gosariak, pintxoak, pintxoan catering-a, eta taldeko edonolako bazkari eta aforitarako erreserbak

Ezkundu aurreko agurreko ospakizunak • Ostialetan, musika eta guzti

Jado fundazioaren kalea, 10 • 48950 ALTZAGA (Bizkaia) • 94-467 43 71

hamaika abantaila

berrialaguna

ETXEGAR
GARBIKETAK

Altamira bidea, 5 • 20180 OIARTZUN
Tel.: 679-95 26 15 • Faxa: 943-49 16 00
etxegarsl@telefonica.net • IFK: B-20518890